

2020. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2019ko urriaren 18an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2019/12/23. 244. zk.

## ORDENANTZA FISKALA, UDAL HILERRIAREN TASA ARAUTZEN DUENA

### **1. artikulua. OINARRIA ETA IZAERA**

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrita, udal honek Udal Hilerriaren Tasa eskatuko du.

### **2. artikulua. EGITATE EZARGARRIA**

Tasa honetako egitate ezargarría Udal Hilerriko zerbitzuak ematea da eta baita nitxo, panteoi eta hilobientzat terrenoaren adjudikazioak ere, besteak beste:

\* Nitxo, panteoi edo hilobietan hilobiratzea (Hilobi eskubideak).

\* Gorpuak txikitzea edo lekuz aldatzea.

\* Heriotza-polizak emondako bestelako edozein zerbitzu, bai egokia danean, bai alde batek eskatuta baimentzen danean.

### **3. artikulua. SALBUESPEN SUBJEKTIBOAK**

Salbuetsita egongo dira, udalaren gizarte zerbitzuek ehortzitakoek gaudimenik ez daukiela egiaztatzen duen txostena eginda, gaudimenik bako pertsona horreek ehortzeko zerbitzuak.

### **4. Artikulua: SUBJEKTU PASIBOA**

Zerbitzua emateko eskabidea egiten duen pertsona fisikoa edo juridikoa eta bai lizentzia edo emakidak jasotzen dituen pertsonak edo erabilera onuradunak, baimenik barik gauzatu badira ere, izango dira tasaren subjektu pasiboa.

### **5. artikulua: TASA KUOTA**

Tasa kuota honako tarifa hauek aplikatuta finkatuko da:

	<b>2020(€)</b>
<b>1.epigrafea: Gorpu hilobiratzeko lizentzia :</b>	
1.1- Panteoian	209,37 €
1.2- Hilobian	146,23 €
1.3- Nitxoan	114,33 €
1.4- Kendutako gorputz zatia hilobiratzea	17,94 €

1.5- Abortuetako umekiak	18,40 €
1.6- Erretako gorpua	18,40 €
<b>2.epigrafea: Gorpuzkinak txikitu eta lekuz aldatzea:</b>	
2.1- Gorpuzkinak txikitzea eta berriro hilobi berean sartzea	33,45 €
2.2- Euren barik beste hilobi batean jarrita gorpuzkinak txikitzea	50,71 €
2.3- Gorpuzkinentzako nitxoetan edo hazurtegi jarri gorpuzkinak txikitzea	50,71 €
2.4- Ondino gai organikoak daukiezalako, gorpuzkinak txikitu aurretik eginiko lanak	112,03 €
2.5- Udal hilerritik kanpora eroateko, gorpuzkinak txikitzea	25,27 €
2.6- Aurretiaz txikitutako gorpuzkinak beste hilobi batera edo udalerritik kanpora eroateko hilobia altxatea	19,89 €
2.7- Beste hilerritik ekarritako gorpuzkinak hilobiratzea	19,89 €
2.8- Euren hilobian berriro jarri gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	67,48 €
2.9- Euren barik beste hilobi batean jarrita gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	84,20 €
2.10 Gorpuzkinentzako nitxoetan edo hazurtegi jarri gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	84,20 €
2.11- Udal hilerritik kanpora eroateko, gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	59,51 €
2.12- Aurretiaz txikitutako gorpuzkinak erretzea edota haustu beste hilobi batera, hilerritik kanpora edo udalerritik kanpora eroateko	54,30 €
2.13- Beste hilerritik ekarritako gorpuzkinak erre edota haustu eta hilobiratzea	54,30 €
<b>3.epigrafea: Eskualdatzeak:</b>	
3.1- Panteoiarena:	
3.1.1- Dohaintza	569,56 €
3.1.2- Oinordeko bakar baten aldeko herentzia	569,56 €
3.1.3- Herentziaz, besteek uko eginda, oinordeko baten alde geratzen denean	1.139,10 €
3.1.4- Gainerako eskualdatzeak	2.278,23 €
3.2- Hilobiarena:	
3.2.1 Dohaintza	285,46 €
3.2.2- Oinordeko bakar baten aldeko herentzia	285,46 €
3.2.3- Herentziaz, besteek uko eginda, oinordeko baten alde geratzen denean	570,95 €
3.2.4- Gainerako eskualdatzeak	1.141,90 €
3.3- Nitxoena	107,78 €
3.4- Hazurtegiarena	10,82 €
<b>4.epigrafea: Kontzesinoak</b>	
4.1- Nitxoa	211,45 €
4.2- Hazurtegi nitxoa	19,02 €

4.3- Hilobia	5.341,67 €
4.4- Panteoia	21.366,65 €

Kontuan eduki behar da kopuru hauek enkante baten bitartez hobetu beharra egotea litekeena dela, terrenoak baino terrenoaren eskariak handiagoak badira

## 6. artikulua. SORTZAPENA

Tasa ordaindu beharra sortuko da karga daukien zerbitzuak emoten hasten diranean, eta horretarako zerbitzuak hasten dirala ulertuko da zerbitzuak emoteko eskabidea egindakoan.

## 7. artikulua. ORDAINKETAK

1. Subjektu pasiboek zerbitzuak emateko eskaera egingo dute.
2. Zerbitzu bakoitzean banakako aparteko kitapena egingo da tarifa egoki bakoitza aplikatuta.

Kitatu beharreko kontzeptu bat baino gehiago balego, kontzeptuok ordainagiri baten bidalduko dira.

3. Aurreko tarifen aplikazioari jagokozan kuotak zerbitzuaren eskabidea egiten den momentuan ordainduko dira auto-ordainketaren edo zuzeneko ordainketaren kitapenaren modalidadearen bitartez. Horretarako, udal hilerriko arduradunak egunean eskatutako zerbitzuen zerrendea aurkeztuko dau Errenta Sailean, honako datu honeek zehatz eta beren beregi adierazita:

- Zerbitzua egiten duen ehorztetxea.
- Hilobiaren emakidaduna edo zerbitzua eskatzen duen senidea.
- Zerbitzu motak, tarifa banaketaren arabera.
- Hilobiratzeko hilobi motak.
- Hilobiratutako pertsonaren izena.
- Zerbitzua eman den eguna eta ordua.

## AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honetan beren beregi araututa ez dagoanaren inguruan, udal honek onetsitako *Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskapenaren Ordenantza orokorrean* eta aplikatzekoa dwn legerian ezarritakoa bete beharko da.